

Hizkuntza gutxituen itunak ez ditu haiek bermatzen, aditu batek esan duenez

Oinarriak taldearen jardunaldiak gaur amaituko dira, normalizaziorako txostena aztertuta

Erredakzioa/Iruñea

Europako hizkuntza erregional eta gutxituen agiriak ez du bermatzen haien aitzinatzea, batez ere arriskuan daudenean, eta gehienez egungo estatua mantentzeko balio du, Ciemen ikerketa zentroko kide Nicolau Gonzalezek herenegun adierazi zuenez, Oinarriak taldeak Iruñean antolatutako jardunaldien barruan.

NICOLAU GONZALEZ-EN esanetan, 1992an onartu eta Espainiak eta Frantziak sinatuta bai baina berretsita ez duten agiriak badauzka, eduki ere, hizkuntza gutxituendako neurri bizkortzaileak, baina politikarien borondatearen menpe dago zeharo. Gonzalez Ciemen ikerketa zentroko kidea da, eta hitzaldia eman zuen Oinarriak taldeak Nafarroan euskara normalizatzeko legea aurkezteko antolatutako jardunaldietan. Xabier Mendiguren Kontseiluko ordezkariak ere parte hartu zuen.

Gaur amaituko dira jardunaldiak, Planetarioan, arloz arlo egingo den txostenaren eztabaidarekin.

Hizkuntza gutxituak egun Europan zein egoeratan dauden azaldu zuen Gonzalezek, legeen ikuspegitik. Bera da Ciemeneko ikerketa arloko arduraduna eta Europako Batzordeko hizkuntz eskubideak eta legediaren inguruko Mercator izeneko programaren koordinatzailea. Bere hitzaldian Estrasburgon 1992ko urriaren 2an sinatu zen hizkuntza erregionalen



JOXE LACALLE

Nicolau Gonzalez (eskuinean), Nafarroara egindako aurreko bisitaldi batean.

eta gutxituen agiria jorratu zuen batez ere, eta kritiko azaldu zen: «Jada aitzinsolasen azpimarratzen da estatuen integritatea dagoela oinarrian, hizkuntza errebindikatzea estatuaren kontra jotzea balitz bezala».

Bigarren partean hainbat orientazio filosofiko ematen dira txosten horretan, eta hirugarrenean, non muina hor den, arloz arlo jorratzen dira, ehun bat ataletan, hizkuntza gutxituen eskubideak. Ciemeneko kideak kritikatu zuen ehun artikuluko horietatik estatu bakoitzak 35 soilik eta, gainera, nahi dituenak aukeratu ahal izatea.

Arloz arlo, irakaskuntza, justizia, administrazioa,

komunikabideak, kultura eta bizitza ekonomiko eta soziala lantzen ditu agiriak. Gonzalez esanetan, berez oinarri onak dituen legea ezerezean gelditzen da gero. «Soilik atzerapena geldiarazteko balio dezake, ez baitie hizkuntzei ofizialtasun estatistik ematen eta, gainera, estatuen borondatearen menpeko neurriak dira azken finean».

Xabier Mendiguren, Kontseiluz

Xabier Mendiguren Kontseiluko kideak ere azaldu zituen bere hitzaldian Kontseiluzaren sorreraren nondik norakoak, *Bai Euskarari* kanpainaren hasiera eta burutzea

eta egun aurrera ateratzen ari diren Egitasmo Estrategikoaren helburuak.

Gaur, goizean goiz, Oinarriak Nafarroan euskara normalizatzeko aurkeztutako txostena eztabaidatuko da Planetarioan.

Gizonezko bat hil da Azagran auto batek harrapatuta

■ Bizikletan zihoan Tuteran-Logroño errepidean, eta auto batek atzetik jo zuen

Europa Press / Iruñea

AZAGRAKO bertako gizon bat hil zen atzo Tuteratik Logroñora doan NA-134 errepidean izandako istripuan. Hildakoa Manuel San Marcelino Sobejano da, 67 urtekoa.

Trafikoko Guardia Zibila jakinarazi zuenez, istripua goizeko bederatziak inguruan gertatu zen Azagran ikastetxe publikoaren parean. Ez jakin nola, auto batek bizikleta jo zuen eta airean eraman zuen Azagran gizonezkoa. Autoa Logroñoeko gizonezko gazte bat zihoan gidatzen.

Kolpearen ondorioz han bertan hil zen Manuel San Marcelino. Istripua gertatu eta anbulantziak azkar batean iritsi ziren arren, osasun profesionalen heriotza ziurtatu baino ezin izan zuten egin. Epaileak gorpua altxatzeko baimena eman ondoren, agindu zuen Nafarroako Ospitaleko Institutu Anatomiko Forentsera eramateko, gorpuari autopsia egin ziezaioten.

Hainbat taldek egin du bat EUDIMAK deituta gaur Iruñean egingo den manifestazioarekin

■ Desmilitarizazioaren aldeko protesta 17:30etan hasiko da, Autobus geltokian

MALATXA eta Kakitzat talde antimilitaristek eta Amnistia- ren Aldeko Batzordeek bat egin dute, beste askoren artean, Udalerri Intsumituen Mankomunitateak (EUDIMA) deituta gaur Iruñean egingo den manifestazioarekin. Protesta arratsaldeko bostak eta erdietan abiatuko da Autobus Geltokitik, eta Gasteiz hiribidean amaituko da.

Desmilitarizazioaren ordua da! Euskal Herriak nahi duelako, Euskal Herriak behar duelako, armadak kanporatu leloa aukeratu dute antolatzaileek, inhabilitazio zigorraren garaia gainditzear dagoela eta hurrengo urratsari ekin behar zaiola aldarrikatzeko: Euskal Herriaren desmilitarizaziori, hain zuzen ere.

Hainbat talde bat agertu dira lelo horrekin manifestazio deialdiari atxikimendua agertzerakoan. Amnistia- ren Aldeko Batzordeek, esate baterako, azpimarratu dute gizartearen gehiengoak abiarazi duen prozesu demokratikoak kanpoko esku hartzerik gabeko bilakaera eskatzen duela, eta horregatik bere egiten dutela leloa.